



Juan Echano eta María Soledad Gil

Erakunde kolektiboei eta administratzaileei buruzko doktoregoko tesia

María Soledad Gil Nobajas irakasleak otsailaren 25ean defenditu zuen doktoregoko tesia, «*Entes colectivos y administradores: aproximación a un sistema de responsabilidad penal concurrente*» izenekoa, eta Europako doktore titulua lortu zuen, bikain cum laude kalifikazioarekin. Epaimahaiko

kideen aburuz, ikerlan horrek ekarpen sendoa egin dio pertsona juridikoen eta beste erakunde kolektibo batzuen erantzukizun penalaren dogmatikari, eta gaur egun garrantzi handia du, Zigor Kodea berritzen duen 5/2010 Lege Organikoa, ekainaren 22koa, duela gutxi sartu delako indarrean eta erantzukizun penal mota hau lehenengoz ezarri duelako espainiar ordenamendu juridikoan.